

# “Artisautzaren izaera praktikoaren berreskurapena aldarrikatu behar da”

Elena Fabeiroekin solasean



Irudia: Ibai Gandiaga

Elena Fabeiro, Galiziako Xuntaren menpe dagoen *Fundación Centro Galego da Artesanía e do Deseño*ko zuzendaria da egun. Lehenago baina, *Maria Martinez Otero* fundazioko zuzendaria izandakoa da eta bertatik hainbat lantegi eta hitzaldi antolatu zituen nazioarteko hainbat diseinatzaile garaikide Galiziara ekarriz. Artisautza eta diseinuarekin harremanetan bizi den Elenari zenbait galdera egin dizkiogu, bi esparru horien arteko lotura eta tentsioei buruz. Artisautzaren balioa eta oinordetza bermatzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko gisa ulertzea baita tekniken erabilera gaurkotuak bilatzea ere.



Maider Uriarte °

Aldiri, 2012, III, 9, 28-29, ISSN 1889-7185  
Jasotze-data: 2012-1-4 / Onarpen-data: 2012-1-13

**Normalean, artisautza beste garaiko tresnen ekoizpen eta berrekoizpenarekin lotzen dugu. Esan daiteke artisautzak erabilera zaharkitua duten objektuak ekoizten dituela, teknikoki garapen gutxiago duen bizimodu batekoak? Egungo bizitzara molda daitezke? Jatorrizko objektuak beren funtzioa galdu dutelarik, balio nostalgikoa atxikitzen zaie, iraganeko oroitzapenak balira bezala. Artisautza dekorazio gisa erabiltzen da. Zein da zure iritzia?**

Egia da tradizioz artisautzaren funtzioa praktikotasunean zetzala. Denak behar zuen erabilgarria izan eta egun erabiltzen ez ditugun hainbat gauza dekorazio gisa darabiltzagu. Hala ere, pentsatzen dut beharrezkoa dela artisautzaren izaera praktikoa berreskuratzea. Gure bizitzan eta egunerokotasunean tokia duten pieza erabilgarriak izan daitezke. Hala, artisautzaren inguruan merkatua sor daiteke, alegia, artisauek pieza bat behin dekoratzeko soilik saltzearen ordez, pieza hori behin eta berriro saltzea lortzea. Izan ere, erabilera eta desgastearen poderioz, berriagoa den pieza batekin ordezka daitezke zaharragoak. Artisautza gaurkotasunean murgiltzen den sektore dinamikoa izateko modua hauxe dela iruditzen zait.

**Zein da egungo kultur egoeran artisauek sortzen duen objektuaren balioa?**

Berekoaren berreskurapena bilatzen den une batean bizi garela uste dut. Originala, benetakoa, bilatzeko joera dago; ezberdintzea eta eskusiboa dena bilatzen dugu merkatu globalizatuaren testuinguruan, non teknologia berriek lotuago egoera, gertutasuna eta antzekotasuna sustatzen dituzten. Egoera honetan, artisautzak balio gehitua duten objektuak eskaintzen ditu; izan ere, pieza bakoitzaren zein sortzailearen atzean beti dago historiaren bat.

Artisautza berezitu egiten da munduko edozein txokotan modu seriatuan ekoiztu diren hainbat produktuen artean.

Iraupen motzeko, malgutasun mugatuko eta modu masiboan produzitzen diren piezak dira. Produktu artisauek berezia da; izan ere, maiz oso zorrotza den bezero zehatz bat bilatzen duelako. Horrek eskuz egindakoa baloratzen du eta pieza original baten atzetik dabil, egile eta istorio propio bat duena. Egun, hauxe da artisautzaren abantaila eta aprobetxatu beharra dago.

**Hainbat teknika tradizional daude ekoizpenerako eta bakoitzak jakintza-esparru bat dakar berekin. Teknika hauek galtzen ari ote dira? Nola transmititu daitezke?**

Nola edo hala lortu behar dugu teknika tradizional hauek ez galtzea, belaunaldiko erreleboaren gabezia nolabait konponduz. Hau arazo larria da zenbait ofiziotan. Galizian irtenbide gisa diru-laguntzak ditugu apendizak kontratatu ahal izateko, mantenu esku-hartze eta tradizionalagok den artisautzari eusteko.

Irtenbidea ofizio tradizionalak egunerokotasunarekin lotzean datza. Piezen erabilera eguneratzeko eta produktu-ildoan aniztasuna sustatzeko. Hala, artisauek merkatuko esparrua zabaldu dezakete. Zentzu horretan, Galiziako saregile kolektiboaren teknikak moda osagarrien eta dekorazioaren merkatura moldatzeko proiektua aipatu nahi nuke.

Galizian pribilegiozkoa da dugun artisautza-tradizio aberats eta askotarikoa. Aprobetxatu egin beharko genuke tradizio hori, artisautza-sektorearekin identifikatu eta merkatuan toki bat bilatuko liguketen balio gehituko pieza bereziak sortuz.

**Teknikak lotura zuzena du lantzen dan materialarekin. Gainera, esan daiteke teknika eta materialak tokian tokiko ekologien ondorio direla, ingurugiro zehatzenak. Nola baloratzen duzu alderdi hori?**



Artesanía de Galicia-ren azken iragarki-kanpainako irudiak

Pentsatzen dut hori batez ere tradizionalagoak diren ofizioetan ikusten dela, eremu bakoitzeko materialarekin lotura handiagoa dutenak, esaterako buztzingintzan. Teknika horrek tokian tokiko buztinak erabiltzen ditu. Baita zura lantzen duten ofizioetan ere. Zer esanik ez, beste toki batean zentzurik ez luketen ofizio bereziei buruz, adibidez, saregileena edo erriberako arotzeriarena, kostaldearekin lotura zuzena dutenak. *Collareira* izenaz ezagutzen diren *O Groveko* artisauek, adibidez, hondartzetan jasotzen dituzten oskolekin bitxiak eta apaingarriak egiten dituzte.

Gainera, artisautzak sustatzen duen bereizketa hori ekoizpen lokalaren aldarrikapenarekin lotarazten du, bestelako turismo batekin esaterako, edo ingurumen eta ekologiarekin errespetuzko harremana duen bizitza-estiloarekin ere. Produktu artisauaren balioa handitzen duten faktoreak dira horiek.

#### **Posible ote da teknika eta material zaharrak gaurkotasunera ekartzea?**

Posible izateaz gain, ezinbestekoa da artisautza tradizionalaren jarraipena bermatu ahal izateko. Pieza hauek gure bizitza eguneratuan barneratu behar ditugu, erabilera aldatzen baldin bada ere. Etnografia-museotan giltzapetuta geldirik ez daitezken eta gure kulturaren parte izaten jarrai dezaten, erabilera eta egokitzapena bermatu beharra dago.

Gainera, uste dugu, tradizioari eustea ezinbestekoa dela artisautza sektore sendoa izateko, etorkizunerako prest dagoena. Berrikuntza eta diseinua oinarri tradizional batean aplikatzeak artisautza-pieza gaurkotuak, kalitatekoak eta identitatearekin lotura dutenak sortzeko balio dezake.

#### **Zein da zure ustez artisautzaren egungo egoera, zein joera, material, teknika daude?**

Uste dut egungo panorama oso egungoa dela. Galizian zorionez oso sektore heterogeneoa daukagu, artisautza tradizionalaren eta teknika zein material berriak darabiltzan artisautzaren arteko elkarbizitza baitugu. Honen testuingurua, esan bezala, artisautza-produktuarentzako merkatua eta produktu-ildo berrien bilaketak zehazten du.

#### **Seriean ekoizten den industria-diseinua eta artisautza. Ezberdintasunak eta loturak: xehetasuna, elaborazioa-ekoizpena, artisaua-diseinatzailea, salketa-merkatua, materiala...**

Jakitun gara artisautzak ezin duela prezioari dagokionez seriean ekoizten diren produktuekin lehiatu. Haren balioa zein bereizketa beste bide batetik doa, esklusibitatearen eta pieza bakarraren bidetik, alegia. Hala ere, artisauek kontuan izan behar dute, piezen elaborazioaz gain beste lan batzuk dituztela, enpresa batekin zerikusia dutenak. Denbora eskaini behar zaie artisautzarekin zerikusia ez duten lan horiei, kreatibitatez landu badaitezke ere: haien produktuaren irudia zehazteko, baita artisau eta sortzaile gisa irudia finkatzeko lana ere.

Galiziako *Artesanía de Galicia*ren presentzia eskertzekoa da. Izan ere prestigiosko eta erreferentziazko marka da hau, kalitateko artisau-produktuarekin lotua, Galizian egina, Xuntak ziurtatzen duen artisauak egina.

#### **Zer ekarpen egin dezake artisau-jakiturik tamaina handi-goko diseinuetan, arkitekturan esaterako?**

Artisauen esperientziak eta lan-metodologiak izugarritzko balioa gehitu diezaiokete arkitektoen eta dekoratzaileen lanari. Bi lan-esparru horiek errazten dute, esaterako, tornugintza, ebanisteria, saskigintza, ohila, zaharberritzea eta forjaren moduko jardueren aplikazioen garapena.

° Maider Uriarte arkitektoa da eta UPV/EHUren Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren doktoratu aurreko ikerketa-beka onuraduna.

